

## ZABALZA BERAZA eta ZABALZA CERDEIRIÑA (2012)

*Profesor@s y profesión docente*. Madril: Narcea

«Educadores XXI» izen esanguratsuko bilduman Narcea argialetxeak beste ale bat kaleratzen du irakaskuntza munduan oso ezaguna den Miguel A. Zabalzak eta alabak ekoiztua. Aldaketa sakoneko garai hauetan, irakaskuntza alorrean ere ikaragarriak dira eman izan diren eta ematen ari diren aldaketak; ez da harritzekoa beraz, irakasleen prestakuntza eta jardueretan antzeko neurrikoak eskatzea, azken buruan, irakaskuntza eremuan identitate berri bat sortu izan da, irakaslearen irudia itxuraldatuta agertuz. Testuinguru honetan egileek —euren esperientzietatik abiatuta— irakasleei dagozkien zenbait gaien inguruan zenbait hausnarketa plazaratzen dute, batez ere, irakurlearengan halakoak sortarazteko asmoz.

Hiru multzotan egituratuta (bigarrena hiru ataletan banatuta) agertzen da liburua eta lehendabizikoa —nola ez!— gaur egungo ezaugarria den aldaketa garaia planteatzen da, ezinbesteko erreferentzia egungo irakaskuntzaren inguruan hausnarketetan abiatzeko. Familiaren eta eskolaren ohiko zereginak nola izan diren aldatuak aztertuz, sarrerarena egiten du zenbait dilema edo hautabide planteatzeko: lehendabizikoa natura eta giza mailarenaren artekoa eta bigarrena bizitza eta eskola erakundearen artekoa, hezkuntzaren etapa guztietatik (haur hezkuntza, lehen mailakoa, bigarren mailakoa eta unibertsitatekoa) ibilbide guztiz interesgarria eginez.

Bigarren multzoan irakaslearen figura aztertzen da izenburu esanguratsurekin «Irakasleria kaleidoskopioan», irudi horren bitartez irakasleek jokatzen duten papera aztertzeko ikuspuntu anitzeko azterketak ahalbidertzen direla adierazi nahian. Hiru azpiatalak honakoak dira hurrenez hurren «Irakasleak pertsona gisa», «Irakasleak profesional gisa» eta «Irakasleak

langile gisa» eta izenburuei erreparatuta, oso erraz antzeman daiteke ba-koitzaren nondik norakoa, irakasleen dimentsio ezberdin hauetan zenbait gai eta galdera bideratuz, funtsean norberak bere hausnarketa egin dezan.

Hirugarrena guztiz adierazgarria den izenburuarekin azaltzen dute: «Irakasle onak» eta hemen bildu egiten dute irakasle on batek eduki behar-ko lituzkeen ezaugarriak, konpromezuen bitartez adierazita: bere buruarekin eta norberaren garapenarekin konpromezua, ezagutzekin konpromezua, lanbidearen kulturarekin konpromezua, ikasleekin konpromezua: sentsibildade pedagogikoa, lankideekin konpromezua: talde lana, komunitatearekin konpromezua: gizarte konpromezua.

Liburua diseinatuta dago, ez ezagutza edota ikerketa batzuen berri emateko, irakasle lanbidearen osagai esanguratsuen erreparatua egiteko bai-zik, irakurleari (ustez lanbide berekoa) eguneroko jardueran jokoan jartzen diren abileziak, ezagutzak, kompetentziak eta abarrei buruz hausnarketa kritikoa egiteko baita egunerokoarena baino haratagoko ikuspegitik ere lanbide honi buruzko —arduratsu eta inplikaturako— gogoeta egiteko ere. Garbi uzten dute lanbide izatetik askoz haratagoko planteamendua dela eurok proposatzen dutena: bizi egin behar da, dastatu eta jasan egiten duzu, atrapatuta zaude izate horretan; alde horretatik, azpiztitulua ezin adierazgarria da «entre el “ser” y el “estar”». Norberaren (irakasle garen) barne go- goetarako oso tresna atsegina eta eraginkorra izan daitekeena.

*J.M.<sup>a</sup> Sagasti*